

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak eta Pirinio Atlantikoeak Donibane Garazi eta Orreaga arteko etaparen segurtasunaren gaiari heldu diote

Donejakue bidearen tarte horretan 30 eta 100 gorabehera artean izaten dira urtero

Miércoles, 06 de agosto de 2014

Donibane Garazi (Frantzia) eta Orreaga arteko Donejakue bideko etaparen segurtasuna hobetzeari buruzko bilera egin dute Nafarroako eta Frantziako Pirinio Atlantikoko departamenduko ordezkariak, bi eskualdeak partaide dituen "Safer Pyrenees" izeneko proiektuaren barruan.



Morrás kontseilaria, Pauen izan zen bilerako une batean

Etaparen ibilbidea menditsua denez, arriskutsua izan daiteke neguan, lainoa eta elurra dela eta. Kalkulatu denaren arabera, 70.000 erromes baino gehiago pasatzen dira handik eta 30 eta 100 gorabehera artean erregistratzen dira urtero. Askotan, bilaketa- eta erreskate-operazioak egin behar izaten dira. Gainera, inguruko komunikazio-sistemak urriak dira.

Uztailean egin zuten bileran, "Camino de Santiago" mugako bi aldeetako proiektua gauzatzeko aukera eztabaidatu zen. Horren bidez, erromesekin komunikazio mugikorra izatea lortuko litzateke, telefono adimendunetarako aplikazio bat erabilita. Erromesen segurtasuna eta erosotasuna hobetzea da proiektuaren helburua. Gainera, informatzeko, seinaleak jartzeko, komunikazioa bideratzeko eta prebentziorako ekintzak aurkeztu ziren, etapa horretako zerbitzu guztiak hobetzeko.

Bilera Parlament de Navarre egoitzan izan zen, Pauen. Javier Morrás Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilaria izan zen Nafarroako ordezkariaren buru; Frantziako eskualdearen buru, aldiz, Guy Mondorge Pirinio Atlantikokoetako Conseil Général-eko Kultura lehendakariordea.

Mugako bi aldeetako lankidetzak

Bestalde, Nafarroako Larrialdietako Agentzia (NLA) eta Pirinio Atlantikokoetako larrialdien erakunde arduraduna, SDIS, mugako bi aldeetan gauzatu beharreko ekintzak koordinatzen ari dira. Lankidetzak hori dela-eta, SDISen ordezkari batzuk [lruñean izan ziren](#), San Fermin jaietan, larrialdietarako antolakuntza gertutik ezagutzeko.

Gainera, lankidetzan aritzeko eta segurtasun-antolakuntza bertatik ezagutzeko, Nafarroako Gobernuko ordezkariak Landetara joango dira datorren udazkenean, aurreikus daitekeen arriskua saihesteko antolaketari buruzko jardunaldi batera.

"Safer Pyrenees" proiektua

["Safer Pyrenees"](#) izeneko proiektua iragan martxoan aurkeztu zen Iruñean. Horren helburua Pirinioen inguruan izan litezkeen larrialdiei eta babes zibileko ezbeharrei erantzuteko koordinazioa hobetzea da. Ekimenaren asmoetako batzuk dira egoera arriskutsuak prestatzea erabilgarri dauden baliabide eta azpiegiturak identifikatuta, larrialdi-egoeretan edo babes zibileko ezbeharretan erantzun koordinatuak emateko esku-hartzeko protokoloak sortzea, Pirinioetako larrialdi-komunikazioak hobetzea eta trebatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak gauzatzea.